

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuan, beste guztietan bezala, bezeroak dira arrakastaren gakoa. Atal honetan, gure bezero-eredua definituko dugu, eta haren ezaugarri nagusiak identifikatuko ditugu.



Lehenik eta behin, gure aplikazioko erabiltzaileek 18 urte eduki behar dituzte gutxienez, App barruan diru transakzioak egin beharko direlako gauza zehatz batzuetarako, eta gure ustez arazoak sahiesteko hau delako konponbide errazena, adingabeak diren pertsonak beraien gurasoen baimena behar dutelako. Bestalde, 25-35 urte bitarteko jendearentzat izango da, hori izaten baita enpresa bat sortzeko adinik ohikoena edo egokiena, denbora, dirua, eta energia duzulako. Hau ez dugu oinarririk gabe esaten: ikertu ditugun iturriek ere berdina esaten dute. Gure lehentasuna adin tarte horretako pertsonak dira, unibertsitatea bukatu, lan munduan esperientzia pixkat lortu, eta enpresa-munduan murgildu nahi dutenak.

Horrez gain, pentsamolde berritzailea eta ideia argiak edukitzea da gure bezeroak behar duen beste ezaugarri bat. Erronka eta arazoei aurre egiteko gaitasuna edukitzea ere garrantzitsua da. Hau da, pertsona proaktiboak izango dira gure bezeroak, haien proiektuek funtziona dezaten. Gainera, ekintzaileek behar duten ezaugarri oso garrantzitsu bat sormena da, beraz irudimen handiko pertsonak izango dira. Horrez gain, garrantzitsua da beste pertsonekin lana egiteko erraztasuna izatea, azkenik hori delako gure proiektuaren helburua: ekintzaileak bateratzea.

Hizkuntzari eta nazionalitateari dagokionez, garrantzitsua da ingelesa edota euskara hitz egiten jakitea horiek direlako gure app-ean erabilgarri egongo diren hizkuntza bakarrak. Nongoak diren ez du gehiegi axola app-a mundu mailako zerbitzu bat delako.

Azkenik, egoera ekonomikoaz hitz egiterakoan, gure bezeroek ez dute diru askorik eduki beharrik, ez badute beste proiektuetan inbertitu nahi. Teknikoki, dirurik ez duen pertsona batek aplikazioa erabili dezake, eta milioiak dituen pertsona batek ere: dirurik ez dutenek, norbaiten proiektuak laguntza eskeini dezakete negozio kide bezala, egoera ekonomiko normal samarra duen pertsona batek (ondo bizitzeko

behar adina bai, baina ez da aberatsa) bere proiektua ipini dezake, kapitala edukiko duelako adibidez ideia erregistratzeko eta egitasmoa bera aurrera bultzatzeko, eta azkenik oso diruduna den norbaitek beste proiektuetan inbertitzeko erabili dezake aplikazioa.